

SANTI

MA  
MINE





# SANTI MAMIÑE

---

**SANTIMAMIÑE KOBAZULOA** munduko historiaurreko artearen funtsezko adierazlea da, eta UNESCOk Gizadiaren Ondare izendatu zuen. Kontserbazio-arrazoientatik publikoa ezin da sartu, eta, gaur egun, ataria bisita daiteke; kobazuloan bizi izan ziren lehenengo gizakien aztarnak dituen eremua, hain zuzen. Bisita osatzeko ibilbide birtual bat egiten da pinturen ganberan eta kobazuloko galeriarik sakonenetan barrena.



[www.bizkaikoa.bizkaia.eus/santimamiñe](http://www.bizkaikoa.bizkaia.eus/santimamiñe)

Barrio Basondo 48315 Kortezubi

94 465 16 57

santimamine@bizkaia.eus



## JARDUERAK

### URTE OSOA BISITA GIDATUAK



Bisita gidatuak egiten dira egunero, neguko astelehenetan izan ezik, Santimamiñeko basilizan dagoen erreplika birtualetik kobazulora, eta, bertan, ezagutzera ematen da kontserbatzen duen arkeologia aztarnategia.

Horrez gain, nazioarteko ekitaldiak edota tokiko ospakizunak direla eta, historiaurreko emakumeari buruzko bisita tematikoak egin izan dira (martxoaren 8, 9 eta 10ean), bai eta Santimamiñeko itsas baliabideei buruzkoak ere (martxoaren 23 eta 24an).

### URRIA KONFERENTZIAK

Urriaren 5ean, ibilbideei, sareei eta konexioei lotutako kultura-ondarearen inguruko Ondareari buruzko Europako Jardunaldien markoan, Diego Garate doktoreak labar-arteari buruzko aurkezpena egingo du, ideiak eta kontzeptuak transmititzeko eta giza taldeen arteko loturak ezartzeko lehenengo mekanismoetako bat izan zen aldetik.





---

## AZAROA IBILBIDEAK

Bisita **Altamirako neokobazulora** (Kantabria) Ospatzeko Hezkuntza, zientzia eta kulturarako Nazio Batuen erakundeak (UNESCO) Santimamiñe eta Kantauriko beste kobazulo batzuk Munduko Ondarearen ondasun izendatu zituela, kobazulora bisita bat antolatu da historiaurreko artea erakusteko beste modu bat ikusteko (azaroaren 23an).







## UMEENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO JARDUERAK

### URTE OSOA HAURRENTZAKO TAILERRAK (5-12 urte)

5 eta 12 urte arteko adingabeentzako tailerrak antolatzen dira hileroko, askotariko gaietarako buruz, artearekin, historiaurrearekin eta ingurumenarekin lotuta.

### ABENDUA IPUIN-KONTALARIA

Abenduaren 15ean, urtea amaitzeko, ipuin-kontalari batek istorio harrigarriak kontatuko ditu kobazuloari eta berorren sekretuei buruz.

### ABENDUA OLENTZERO

Kobazuloa inguratzen duen arte-basotik aterako da Olentzero, eta baselizara bidean berarekin izango gara. Bertan atsedean hartuko du eta Urdaibaiko etxe eta baserrietatik ibiliko da geroago.



## JARDUERA BEREZIAK

---

### BISITA GIDATUAK

Doako bisitak, bisita tematikoak, konferentziak edota jadanik adierazitako ibilbideak egingo dira honako egun hauetan:

Euskal kostaldeko museoen hilabetea (martxo).

Monumentu eta toki historikoen eguna (apirila).

Arkeologiaren Europako jardunaldiak (ekaina).

Kobazuloaren eguna (uztaila).

ICE AGE museoen sarearen eguna (iraila).

Gizadiaren Ondarearen eguna (apirila).

Azpimarratu behar da ekitaldiak antolatu direla gogorarazteko 1916an kobazuloko pinturak aurkitu zirela (uztailaren 12an, ostirala):

- Gaueko bisita bat kobazulora eta aztarnategira.
- Gaueko dantza- eta musika-ikuskizun bat.

ARRAN



TZA  
LEFEN  
MUSEOA





# ARRANTZALEEN MUSEOA

---

Bermeoko Portu Zaharraren gainean, zutik dago Ertzilla Dorrea, 1943an Monumentu Nazional izendatu zutena. Haren hormek Arrantzaleen Museoaren aretoak aterpetzen dituzte 1948az geroztik. Itsasoarekin zerikusia duten euskal gizon eta emakumeen historia, bizitza eta lana erakusten dituen museoa da. Bertan, haien bizitza eta ohiturak, gremio-erakundeak, ontziak eta arrantzarako eta arraina merkaturatzeko denboran zehar erabili dituzten teknikak deskribatzen dira.

Euzko Itsas Gudarostearen (Marina de Guerra Auxiliar de Euzkadi) historia ere ezagutu dezakegu; bertako gunen nagusia euskal arrantzaleek osatu zuten.



[www.bizkaikoa.bizkaia.eus/arrantzaleenmuseoa](http://www.bizkaikoa.bizkaia.eus/arrantzaleenmuseoa)

Ertzilla Dorrea. Torronteroko enparantza 48370 BERMEO  
946 881 171

arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Facebook: @ArrantzaleenMuseoa

Instagram: @arrantzaleenmuseoa



## ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

Museoaren azken solairuan aldi baterako erakusketak daude, itsasoari, arrantzari edo Bermeoko herriari lotutakoak.

### EKAINERARTE **BERMEO, CABEZA DE VIZCAYA, ERDI AROAN**

Lehen aldiz, hiribilduarekin zer ikusia duten pergaminoak eta hainbat dokumentu nagusi aurkezten dira Bermeon, herritarrak iraganeko iturri-ondare garrantzitsu horren partaide eginez. Gainera, paneletako testuen eta ilustrazioen bidez, gure tokiko historian gutxi aztertu den aldi horretan Bermeok izan zuen bilakaera historikoa behatu ahal izango da.

### EKAINETIK AURRERA

#### **BERMEO. PORTU ZAHARRA 1880-2024**

Erakusketa honekin denboran zehar bidaiatuko du bisitariak Iñaki Markaidaren bildumako argazkien bidez. Erakusketarako aukeratutako argazkiek portuaren, bertako jendearen eta arrantzarekin lotutako lanbideen bilakaera erakusten dute 140 urteko historian zehar.






## JARDUERAK

### URTE OSOA BISITA GIDATUAK

Asteartetik ostiralera, urte guztian zehar, bisita gidatuak eskaintzen dira taldeentzat. Arrantzaleen eta beraien familien bizitza eta ohiturekin erlazioa duten gaietan sakondu eta historian zehar arraina harrapatu eta saltzeko erabili diren teknikak ezagutzuz. Gidariekin, talde motaren arabera azalpenak egokitzen dituzte.

**Bermeo Erdi Aroan** hitzaldi zikloa: erakusketaren osagarri gisa urtarriletik maiatzera ikuspegi ezberdinak landuko ditugu.

- Urtarrilak 18: **Dokumentazioaren ikuspuntutik Bermeo Erdi Aroan.** Irakaslea: Bitor Uriarte, (euskeraz).
- Otsailak 15: **Bermeo: Erdi Aroko dokumentaziorik gabeko herria?** Asier Romerok emana, Bermeori buruzko argitalpen askoren egilea (euskeraz).
- Martxoak 14: **Participación de las mujeres en el contexto socio-económico familiar durante la Baja Edad Media.** Isabel Mellén Erdi Aroko euskal ondarearen ikertzaile eta dibulgatzailearen eskutik (gazteleraz).
- Apirilak 25: **Santa María de la Atalaya: historia de un icono desaparecido** Jesús Muñiz eta Asier Romero ikertzaileek emana, (gazteleraz)
- Maiatzak 30: **Recreación gráfica: una mirada al pasado de Bermeo** Rober Garay diziplina anitzeko ilustratzailearen eskutik. (gazteleraz).
- **“Bermeo. Portu Zaharra 1889-2024”** hitzaldiak: Iñaki Markaidak argazkien begirada desberdinak ekarriko ditu. Alde batetik, argazkien atzean dauden istorioak kontatuko ditu. Bestetik, argazkien alde teknikoaz arituko da, nola daude eginak argazkiak? Nola egiten da antzinako argazkiak errekuperatu eta digitalki tratatzeko?








## UMEENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO JARDUERAK

### URTE OSOA UMEENTZAKO TAILERRAK: 5-12 urte bitarteko umeentzako.

Urtean zehar, sei igandetan, umeek arrantza mundura modu didaktiko eta entretenigarrian hurbiltzeko aukera izango dute.



## JARDUERA BEREZIAK

### MAIATZA ARRAIN AZOKA

### EKAINA GURE ONDAREA EZAGUTZEN: ARRANTZA ATZO ETA GAUR HITZALDI ZIKLOAREN MAHAI INGURUA

Museoaren 75. urteurrenak 2023an emandako hitzaldi guztien ekarpenak jasotzeko saioa.

### ABUZTUA 1912KO GALERNAREN URTEURRENA





## ARGITALPENAK


---

### **GURE ONDAREA EZAGUTZEN: ARRANTZA ATZO ETA GAUR**


2023an, Arrantzaleen Museoaren 75. urteurrenagatik antolatutako hitzaldi zikloan jasotako ekarpenekin egindako argitalpena.

### **BERMEO. PORTU ZAHARRA 1880-2024**

Erakusketarekin batera, garai ezberdinetan ateratako Bermeoko portuko 100 argazki inguru bilduko dituen argitalpena.



# EUSKAL HERRIA MUSE OA







# EUSKAL HERRIA MUSEOA

---

Euskal Herria Museoa 1733ko Alegria Jauregi barrokoan du egoitza, Gernikako Arbolaren ondoan. 1937ko bonbardaketaren ondoren zutik dagoen eraikin historiko bakarretakoa da.

Bizkaiko Foru Aldundiak jauregia eta bere lorategia birgaitu eta Euskal Herria Museoa eta Europako Herrien Parkea bihurtu zituen 1991ean.

Museoa hiru solairutan banatutako erakusketa du ikusgai. Euskal kultura eta herri honetako bilakaera historikoa ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen du XIX eta XX. mendeko artelan, maketa, dokumentu eta ikus-entzunezkoen bitartez.

Euskal dantzak eta musika, herri kirolak, gastronomia, sinesmenak eta nola ez, euskaraz goza daiteke modu erakargarrian.



[www.bizkaikoa.bizkaia.eus/euskalherriamuseoa](http://www.bizkaikoa.bizkaia.eus/euskalherriamuseoa)

Alegria Jauregia. Allendesalazar 5. 48300 Gernika-Lumo  
946 255 451

[euskalherriamuseoa@bizkaia.eus](mailto:euskalherriamuseoa@bizkaia.eus)

Facebook: [www.facebook.com/EHMGernika](https://www.facebook.com/EHMGernika)

Instagram: [www.instagram.com/ehmuseoa/](https://www.instagram.com/ehmuseoa/)

Youtube: <https://www.youtube.com/user/EHMMuseoa>



## ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

**AZAROA  
APIRILA**

### MARKOS GIMENOREN KARTELETRAK

Azaroaren 27tik 2024ko apirilaren 28ra

Ezkerretik eskuinera edo alderantziz berdin irakurtzen diren esaldiak dira palindromoak. Euskaraz aspaldi idatzi dira: Augustin Txahogen Aztihitza, 1923an Ebaristo Bustintza Kirikiñok palindromo lehiaketa antolatu zuen Euzkadi egunkarian, Bernardo Garro Otxoluak idatzi zituelarik gehienak. Baina, euskal palindromogintza Markos Gimeno eraman zuen gailurrera.

Markos Gimeno Vesga (1974-2018) ermuarra sortzaile aparta izan zen, lan oso berezia egin zituen, batez ere hizkuntzaren alde ludiko esperimentalean. Haren obra ez da ezaguna, zoritxarrez.

Erakusketan, Markosen palindromoak daude ikusgai, kartel forman. Joseba Sarrionandia idazleak eta Esteban Montorio diseinatzaileak prestatu dute Markosen obra miresgarriaren erakusketa.



**MAIATZA**

### ELIKADURA EKOLOGIKOAREKIN DENA HOBETZEN DA - EKO LURRA

Maiatzaren 7tik 29ra

Erakusketa, Euskadiko nekazaritza eta elikadura ekologikoaren kontseiluak egiten duen produktu ekologikoen sustapenaren barruan kokatzen da.

Jendarteari euskal ekoizpen ekologikoari buruzko ikuspegi osoa helaraztea du helburu erakusketa honek; haren abantailak eta ingurumenari ekartzen dizkion onurak azalduz. Hortaz, ingurumenarekin nolabaiteko kezka duen edo tokiko elikagai ekologikoekiko interesa duen edonori informazio ulergarria helaraztea da xede nagusia.



## EKAINA AZAROA

### ARTURO ACEBAL IDIGORAS. ENTRE EUSKADI Y ARGENTINA

Ekainaren 21etik azaroaren 24ra




Erakusketa honen bitartez Arturo Acebal Idigoras artista Bilbotarra omendu eta hobeto ezagutzeko aukera izango da. Batez ere, beste hainbat artista euskaldunei gertatu zitzaizen bezala, Guda Zibilean bere artista karrera alde batera utzi gabe, Argentinara joan beharra izan zuen bere anaiekin batera. Euskal diasporaren momentu hau jorratuko da erakusketan eta honekin batera izango diren jardueretan Arturok Argentinan eta Euskal Herrian sortutako margolan eta zeramikak parekatuko direlarik.

## AZAROA MARTXOA

### HITZ POLITAK - SONIA RUEDA

Azaroaren 28tik 2025eko martxora



Erakusketa honetan Sonia Rueda artistak sortutako **Hitz Politik** liburutik aukeraturiko hitzak ikusi ahal izango dira.

Soniak euskara ikasteko prozesuan hitz bakoitza dastatu eta xehetu nahian hizkuntzaren aberastasunaz gozatu izanaren ondorio da proiektu hau. Adierazpen bakoitza diseinatzeko ariketa horretan, olerki txiki-handiak aurkitzen hasi zen eta koaderno batean apuntatzen, koadernoaren azalean **Hitz Politik** izenburua. Hitz hauek marraztu egin zituen eta prozesu honen ondorioz liburua, erakusketa.





# JARDUERAK

## URTE OSOA

### BISITA GIDATU OROKORRA (12 urtetik aurrera: ordu 1)


Taldeentzako bisita gidatu hauetan euskal kultura eta historia ezagutzeko aukera dago museoeko erakusketa iraunkorrean zehar.

Talde motaren arabera azalpena egokitu egiten da.



### EUSKAL KULTURA - BISITA GIDATU PARTEHARTZAILEA (4-12 urte: 45 minutu. 12 urtetik aurrera: ordu 1)

Bisita honen bitartez euskal kultura modu didaktiko eta entretenigarri batean ezagutzeko aukera dute mota guztietako taldeek, teoria eta praktika uztartuz.



### ALEGRIA JAUREGIA - IBILBIDE GIDATUA (16 urtetik aurrera: ordu eta erdi)

Euskal Herria Museoaren egoitza den Alegria Jauregiaren historia ezagutzeko paregabeko ibilbidea da. 1733ko jauregi barroko honen eta bertako sendi edo leinuen nondik norakoak azaltzen dira bisita berezi honetan.



### LITERATURA ETA ONDAREA - EUSKAL LITERATUR SOLASALDIAK

Urtarriletik apirilera, hilean behin, euskal idazleen lana aztertuko dugu ondareari buruzko hausnarketa solasaldia bultzatuko delarik. Gainera, noizean behin euskal idazleen bisita izango da museoan. Giro erosoan murgilduz euskaraz irakurtzeko zaletasuna piztuko da.

## UZTAILA ABUZTUA

### ONDAREA BERBETAN - ONDAREA MINTZAGAI (Ordua: 11:00-12:00)

Museoko lorategian euskaraz mintzatzeko aukera paregabekoa izango da kafe goxo batekin. Museoaren bildumari izaera ematen dioten pieza sorta batean oinarrituta eztabaida interesgarriak sortuz euskaraz.



\* Bisita eta jarduera guztietan aldeztu aurreko erreserba ezinbestekoa da.



## UMEENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO JARDUERAK

**AZAROTIK  
MAIATZERA**

**FAMILIENTZAKO TAILERRAK**

**(4 urtetik gorako umeak helduekin)**

Hilean asteburu batean, familiako kide guztiak, euskal kultura eta historiako gai ezberdinak ezagutuko dituzte tailer eta jolas dibertigarriak eginez.

**OPORRAK**

**HAURRENTZAKO TAILERRAK OPORRALDIETAN (5-10 urte)**

11:00-13:00

Aste Santu, Uda edo Gabonetako opor garaietan, haurrek euskal historia eta kulturari buruzko tailerretan parte hartzeko aukera dute, jolasak eta jarduera plastikoak eginez.

**AZAROTIK  
MARTXORA**

**GAZTEENTZAKO TAILERRAK (10-13 urte)**

Neska-mutiek elkarlanean sortzeko tailerrak dira. Artearen boterea ulertzeko eta Gernikako eta euren inguruko ondare kultural eta naturala balioesteko.

*\* Jarduera guztietan alde aurreko erreserba ezinbestekoa da.*



# JARDUERA BEREZIAK

## IRAILA HITZALDI

- Artistas vascos en Argentina 1936-1975

## IKUSKIZUNAK

- “Ele-bele”. Abere ba palindromo emankizuna - Bigara
- “Uuuu!” umeentzako ipuinkontakteta - Eneritz Artetxe
- “Graffity” tailerra Markos Gimenoaren graffity palindromikoak - Klemente eta Tono
- “Mursego” palindromo emanaldia
- Euskal erromeria euskal dantzak lorategian - Gernikako Elai Alai dantzataldea

## ERAKUSTALDIA

- Herri Kirol erakustaldi didaktikoa

## MUSEOAREN GAUA (MAIATZAK 25)

- Familia tailerra
- Hitzaldia + dastaketa

Gernika-Lumoko Euskal Herria Museoa urtero ospatzen du maiatzaren amaieran “Europako Museoen Gaua”. Gau berezia da, Europa osoko museoetan ospatzen dena, ateak ohi baino beranduago arte irekita daude eta publiko guztiarentzako jarduera bereziak dituzte. 2008az geroztik, Euskal Herria Museoa arduratzen da sukaldaritzako produktu bat aukeratzeaz, eta familientzako hitzaldi eta dastatze bereziak antolatzeke abiapuntu gisa erabiltzen du. 2024an, “patata” izango da protagonista. Museoa dibulgazio-jardunaldi gisa planteatzen du.





## ARGITALPENAK

**“ARTURO ACEBAL IDIGORAS. ENTRE EUSKADI Y ARGENTINA”  
KATALOGOA.**

*\* Jarduera guztietan aldezk aurreko erreserba ezinbestekoa da.*



# EURO- PAKKO HERRIEN PARKKEA





# EUROPAKO HERRIEN PARKEA

---

Europako Herrien Parkea 1991. urtean zabaldu zen denon gozamenerako. Lehenago Alegria Jauregiaren lorategi eta baratzak zeuden bertan, Bizkaiko Foru Aldundiak birgaitu eta bi ataletan banatutako parke publiko bihurtu zuen. Batetik, Euskal Herria Museoaren lorategi erromantikoa eta bestetik, Euskal Herriko lau ekosistemak biltzen dituen espazio zabal eta lasaia. Atzerriko espezieak ere badaude, eukalipto erraldoi bat, Ginkgo biloba ederra edo Californiako Sequoia izugarria, beste batzuen artean.

Naturaz gozatzeaz gain, leku lasai honetan Euskal Herriko historia eta kulturarekin lotutako hainbat eskultura aurki daitezke, adibidez Wilhelm von Humboldt linguistaren irudia edo Apel les Fenosaren **Monument aux martyrs d'Oradour** eskultura.



[www.bizkaikoa.bizkaia.eus/euskalherriamuseoa](http://www.bizkaikoa.bizkaia.eus/euskalherriamuseoa)

Allendesalazar 5. 48300 GERNIKA-LUMO

946 255 451

[euskalherriamuseoa@bizkaia.eus](mailto:euskalherriamuseoa@bizkaia.eus)

Twitter: <https://twitter.com/EHMuseoa>

Facebook: [www.facebook.com/EHMGernika](http://www.facebook.com/EHMGernika)

Instagram: [www.instagram.com/ehmuseoa/](http://www.instagram.com/ehmuseoa/)

Youtube: <https://www.youtube.com/user/EHMuseoa>



## JARDUERAK

### URTE OSOA BISITA GIDATU BOTANIKOAK

Taldeei zuzendutako bisita gidatu honen bidez parkean dauden zuhaitz espezie anitzak ezagutzeko aukera paregabea da, hauen historia, jatorria eta ezaugarriak aztertuz. Aldez aurreko erreserba ezinbestekoa da.







EUROPAKO HERRIEN PARKEA

